

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

4722

EBAZPENA, 2022ko urriaren 25ekoa, zeinaren bidez iragartzen den Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan jardungo duten Epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitu zen).

2022ko irailaren 22ko Aginduaren (2022ko irailaren 30eko EHAA) bidez deitu zen Hezkuntzako sailburuarena, dei egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua.

Aipatutako Aginduaren 5.1 oinarriak ezartzen du hautaketa-organoek egingo dutela prozesu honetako parte-hartzaileen hautaketa.

Izendapenari buruz, 5.2.2 oinarriak ezartzen du epaimahaikideek oinarri horretan aipatzen diren funtzionarioen artean egingo den zozketaren bidez hautatuko direla. Era berean, adierazten du horren data zozketa egin baino lehen iragarriko dela.

Horregatik guztiarengatik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan jardungo duten Epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitu zen). Zozketa egingo da:

Eguna: 2022ko azaroaren 11n.

Ordua: 11:00etan.

Tokia: Lakua 2 eraikineko 3. aretoan (sarbidea Donostia kalea 1etik da, Vitoria-Gasteizen).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 25a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.